

Ikasturte hasierako guraso bilera orokorra

-LH6-

Orereta -Erreterian, 2023ko urriaren 5ean

1. METODOLOGIA ETA ARLOEN INGURUKO OHARRAK

1.1. Ezaugarri bereizgarriak

Ondorengo ezaugarri bereizgarriak ditu oinarrian Heltzen zikloko metodologiak:

- **Euskal Curriculumua du oinarri.** Pertsonaren garapen osoa eta integrala bilatzen du: geure-geurea den euskal kultura espezifikoaren eta kultura unibertsalaren oinarriak eskuratu, ondorengo ikasketak egin eta lan munduan aritzeko eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko.
- **Pertsona ereduak du helburu.** Maila bakoitzean ikasleak bereganatu behar dituen ezagutzak, gaitasunak eta konpetentziak zehaztuta daude. Pertsona ereduaren arabera eraiki da hezkuntza-prozesuaren curriculum osoa.
- **Oinarrizko konpetentzia orokorrak ikas-arloetan lantzen dira.** Ez da nahikoa jakintza akademikoa eskuratzea. Edozein bizitza-egoeratan konpetentea izatea lortu behar du ikasleak; pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten eta egiten eta ekiten jakin beharko du.
- **Integrazioaren pedagogia du ardatz.** Egoera erreal baten aurrean, ikasleak egoera horretan behar dituen baliabideak bilatzen eta erabiltzen ohitu behar du; bakarrik nahiz talde-lanean, irtenbideak aurkitzen saiatu behar du, eta ikasi duena egoera berrietan baliatu.
- **Ikaskuntza kooperatiboa bultzatzen da.** Taldean lan egiten dute. Ikaskuntzan oinarritutako esku-hartzea bultzatzen du. Lankidetzak konpartitua da helburu, eta, horretarako, kide bakoitzaren rola aldez aurretik zehaztuko dira.
- **Euskararen ardazturiko eleaniztasuna garatzen da.** Hizkuntzen trataera integral eta integratua garatzen du, euskararen ezagutza eta egoera bakoitzak eskatzen duen erabilera egokia ziurtatuz.

1.2. EKI materiala

EKI proiektua ikasmaterial berria eta berritzailea da. Euskal Curriculumua garatzen du, konpetentzietan oinarrituta integrazioaren pedagogiaren bitartez.

UNITATE DIDAKTIKOAREN GARAPENA


Hiru unitate didaktiko ikasturteko. Unitate bakoitza hiru fasetan banatzen da:

Arlokako sekuentzia fasea, era berean, beste hiru fasetan banatzen da:

1. Hasiera fasea: Zer, nola eta zertarako? Egoeraren aurkezpena egiten da.
2. Garapen-fasea: Edukiak eskuratzen dira eta hasierako egoerari aurre egiten zaio
3. Amaierako fasea: Egoera berriei aurre egiten zaie

Ikasleen pertsona ereduak hurbiltzeko konpetentzietan egiten ari garen lanketa dela eta, EKI-k proposatzen dituen unitate didaktikoak aintzat hartuz eta hauek osatze aldera, aldaketa batzuk egiteko erabakia hartu dugu.

Ikasturtean zehar, EKI-ko liburuak eskaintzen dizkiguten baliabideez gain, aurre-ebaluazioan identifikatu eta indartu beharreko atalak txertatuko ditugu. Hori ahalbidetzeko, diziplinarteko hasierako eta bukaerako faseak ez ditugu egingo eta arloko proiektuetan jarriko dugu indarra.



JARDUERA MOTAK

- Ahozko jarduerak
 - Idatzizkoak: arloko liburuak + jarduera fitxak + irakasleek sortutakoak
- Jarduera digitalak:
- www.ekigunea.eus: Bertan jarduera digitalak, fitxak, audioak eta bideoak aurki ditzakezue.
 - GOOGLE DRIVE: ikaslearen biltegi digitala.
 - Informazioa parteka dezakete irakasle-ikasle artean.
 - Ikasleek talde-lanak egiteko erabiliko dute.
 - Historiala du; hau da, irakasleak uneoro jakin dezake ikasleak zer egin duen.
 - Ikasle guztiek karpeta sistema berdina erabiliko dute DRIVEN.

MATERIALA

- Artxidadore bat izango dute unitateko jardueren fitxak gordetzeko.
- Mailegu-sistemako liburuetan ez dugunez ezer idatziko, orri laukidunak erabiliko ditugu ikasgai guztietan.
- Matematikan erregela, eskuaira edo kartaboia, garraia gailua, konpasa eta kalkulagailua erabiliko dituzte.
- Gelako jardueretarako guraizeak eta kola ekarri behar dituzte.

EBALUAZIOA

Unitate bakoitzean arlo ezberdinek bere eduki eta konpetentziak dituzte. Ondoren, unitatearen bukaeran, landutakoa zerbait gauzatzeko erabiliko dugu, honela unitatean zehar ikasitakoa mobilizatu eta transferitzeko aukera izango dutelarik.

Adibidez, arloko fasean...

- Arlokako garapen faseko jarduera batzuk erabiliko ditugu ebaluatzeko. Horietatik aparte, irakasleek material berria sortu dugu unitatea osatzeko.
- Arlokako amaiera faseko proiektuek hartuko dute garrantzia, bertan garapen fasean ikasitako guztiaz baliatuz erronkari aurre egin beharko diotelarik, honela, konpetentzia ezberdinak eskuratuz.

Auto erregulazio jardueren garrantzia azpimarratu nahi da. Jarduera horien bitartez ikasleak bere burua ebaluatu behar du, eta dituen indarguneez eta ahuleziez jabetzeko aukera izango du. Horretaz gain, burutu duen erronkarekiko hausnarketak ere egingo ditu, metakognizioa bultzatuz.

LABURBILDUZ: ZER ESKAINTZEN DIGU EKI PROIEKTUAK?

- Konpetentziak lantzen ditu, arloari dagozkionak zein zeharkakoak.
- Proiektuak baliatzen ditu ikasitakoa mobilizatzeko.
- Autonomia eta ikaskuntza aktiboa lantzen da, ikaslea da protagonista.
- Ikasketa kooperatiboa lantzen da.

1.3. Ikasgaiak

PLASTIKA

Hazten zikloan egindako lanari jarraituz, Heltzen zikloan ikasleen sormena garatzeko erronka eta proiektuak proposatuko zaizkiei.

Plastika ikasgaia EKI proiektutik kanpo badago ere, EKIk unitate didaktikoarekin loturak egiten ahaleginduko gara. Ikasleen lanak urtean zehar Ikastolako arte-galerian egingo diren erakusketetan ikusi ahal izango dira.

Zikloko helburu nagusiak

- Sormena lantzea eta garatzea, irudimena erabiliz, erronka eta arazo berriei erantzuna ematen ikasteko.
- Teknika plastiko desberdinak ezagutzea eta ideia, gertaera, esperientzia eta bizipenak adierazteko erabiltzea.
- Sortuko dituzten arte-ekoizpenak planifikatzen ikastea, artelan bat egiteko urratsak ezagutuz eta aplikatuz.
- Taldeko arte-ekoizpenetan parte hartzea, eta horietan, arauak betetzea, proposamenak egitea, eta konponbideak iradokitzea.

Bestalde, garrantzia berezia emango zaio klaseetan erabiliko ditugun tresna eta materialak zaintzeari, garbitzeari eta plastikako gela txukun mantentzeari.

Arte-ekoizpenetan eta sormen lanetan beharrezkoa den giro atsegina bermatzeko, arreta berezia jarriko dugu gelako jarreran ere.

Materiala

Etiket ekarri beharreko materiala ondorengoak izango da: margoak, errotulagailuak, kola, guraizeak, arkatza, eta mantala (edo kamiseta zahar bat). Gainerako material guztia Ikastolan emango zaie.

MUSIKA

Gure helburuak gauzatzeko emandako urratsak eta erabilitako metodologia honakoa izango da: ENTZUMEN, AHOTS, MUSIKA TRESNA eta ERRITMOEN bidezko hezkuntzak lantzea.

Entzumen hezkuntza

Entzumenaren heziketari dagokionez, helburu nagusia ikasleak entzuten eta adi egoten ikastea da. Entzuten eta adi egoten jakiteak ahots, erritmo eta musika tresnen hezkuntzak lantzen lagunduko digu.

Ahots hezkuntza

Abesti sinpleak bi ahotsetara kantatuko ditugu, kanon eran ere abestiak kantatzen arituko gara abeslari rolean. Honela, kantagintza landuko dugu. Musika hezkuntzaren oinarrietako bat dugu AHOTSA musika tresna gisa.

Musika tresnen hezkuntza

Aurten, perkusioaren urtea izango da. Etiket ekarritako material birziklatuarekin batukada bat sortzen ahaleginduko gara. Alderdi melodikoa landu ahal izateko, piano birtuala erabiliko dugu (IKT).

Erritmo hezkuntza

Erritmoa barneratuta dutenez, hilabete hauetan ikusmenez lantzen hasiko gara: arbelean eskemak jarriz, paperean eta partituretan azalduz. Ahotsa, gorputza (gorputz perkusioa) eta instrumentuak erabiliko ditugu hainbat erritmo lantzeko.

Bateria lantzeko erabiltzen diren partiturak irakurtzen ikasiko dugu.

GORPUTZ HEZKUNTZA

Gorputz hezkuntzako saioetan landuko diren eduki eta konpententziak arloari dagozkion oinarritzko bost akzio motrizetan oinarrituko dira. Horrela, gero eta gehiago landuko dira egoera sozomotorrak nabarmentzen dituzten jarduera fisikoak eta ingurune fisiko ezegonkorretan egiten direnak; ingurune fisikora egokitze premia dakartenak, alegia.

Hauexek dira gauzatuko diren unitate didaktikoak:

- Atletismoa II (Bakarkako akzio motriza)
- Munduko jolasak (Kulturartekotasuna)
- Akrosport-a (Gorputz adierazpena eta komunikazioa)
- Boleibola (Kolaborazio eta oposizio akzio motrizak)
- Euskal pilota (Bat-baten aurkako akzio motriza)

Bukatzeko, garrantzia eman nahi diogu, bereziki adin honetan, gure Ikastolak eskaintzen dizkigun espazio anitzak baliatuz, ikasleak bizitza aktibo aberasgarri eta osasungarria izateko hezteari.

2. EGUNEROKO FUNTZIONAMENDUA IKASTOLAN

EGUNEROKO LANA

Ziklo honetako helburuetako bat aurreko mailetan barneratzen hasitako lan ohiturak indartzea eta finkatzea da.

GELAKO FUNTZIONAMENDUA

Ziklo honetan ikasleei ikasgaia eta irakaslea aldatzen zaie. Horren ondorioz, oso garrantzitsua da beraientzat ikasgai baten ondoren zer duten argi izatea, eta ikasgai horretarako behar duten guztia prestatzea.

Irakaslea gelan sartzan denerako, beharrezko materiala (agenda, liburuak, estutxea...) mahai gainean izatea eskatzen zaie ikasleei, eta aurreko ikasgaiaren erabili duten guztia bere lekuan, ondo eta txukun gordetzea.

Ikasle bakoitza bere materialaren kargu egingo da kurtso guztian zehar.

LANERAKO OHITURAK

- Adi egotea
- Lanak hasi eta bukatzea
- Postura egokian lan egitea
- Txukuntasuna
- Isiltasuna
- Autonomia
- Ondo egindako lana baloratzea
- Materiala zaintzea

3. ETXETIK LAGUNDUZ

Familien laguntza ezinbestekoa dugu ikasleen hezkuntzan eta, ziklo honi dagokionez, lan ohitura egokiak eta jarrera baikorrak garatzen jarraitzea oinarritzkoa da. Horregatik, honako puntu hauetan arreta berezia jartzea eskatzen dizuegu:

ETXEKO LANAK

Etxeko lanak autonomia lantzeko baliabidea dira. Horrela, ikasleak bere autonomia pertsonala garatzeko, mailaz maila beharrezkoak dituen ardurak bereganatu beharko ditu; bai Ikastolan, baita etxean ere. Alderdi akademikoari dagokionez, Ikastolatik bideratutako lanak etxean egin beharko ditu. Ildo horretatik, Heltzen zikloan honako puntu hauetan oinarrituko dira etxeko lanak:

- Agendaren jarraipena egitea eta ordutegia begiratzuz, hurrengo egunerako beharrezkoak dituenak prestatzea.
- Eguneroko irakurketa saioa egitea beharrezkoa da. Irakurtzera animatu etxetik ere.
- Memorizatze lanak, aurkezpenak prestatzea...
- Gelan bukatu ez dituzten lanak ere bukatu beharko dituzte etxean.
- Garrantzitsua da lanak azken egunerako ez uztea.
- Hatz10 aplikazioarekin aritu beharko dute ikasleek etxean, mekanografia lantzeko. Asteaz, 30 minutuko bi saio egin beharko dituzte. Gurasoek ikasleak postura egokian aritzen direla gainbegiratu beharko dute.

Ohitura horiek hartzeko, lagungarria da beti leku eta ordu beretan lan horiek egitea.

MOTIBAZIOA

- Gelan lantzen diren gaiekiko interesa erakutsi.
- Ikasturtean zehar izandako aurrerapena baloratu eta goraipatu.

EUSKARAREN ERABILERA

- Euskal komunikabideak kontsumitzera eta aisialdian euskarazko jarduerak egitera animatu.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

- Banakako beharrak ezberdinak dira.
- Kopuruaz hausnartu eta baloratu.
- Lehentasunak markatu.

AUTONOMIA

Bai Ikastolako jardueretan, bai eguneroko bizitzan, beraiek ardurak hartzea:

- Sortzen diren arazoei aurre egin.
- Zailtasunen aurrean jarrera baikorra eta aktiboa izan. Beraiek bila ditzatela soluzioak, betiere gure laguntza eskainiz behar dutenean.

Autonomiarantz eman beharreko prozesua progresiboa eta pertsonala da.

4. ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

4.1. Helburuak

Orientazioa etengabeko laguntza prozesua da eta helburu du ikasleei oinarrizko kompetentziak eskuratzen eta bere proiektu pertsonala garatzen laguntzea.

Orereta Ikastolako Orientazio Departamentuaren eginkizun nagusia Hezkuntza Orientazioa sustatzea da, curriculum osoan eta ikasle guztiekin. Departamentu honen jarduna bi prozesuetan gauzatzen da gehien bat:

TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA

Tutoretza eta Orientazioa jarduera multzo bat da, bai gela barruan, bai kanpoan landuko dena, eta ikasleei bere garapenean lagunduko diena, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketan aurrera eramaten (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

ANIZTASUNARI ERANTZUNA

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko egon daitezkeen neurri eta programa multzoa da, oinarritzko kompetentziak ahalik eta gehien garatzen laguntzeko.

5. KiVa PROGRAMA

ZER DA KiVa?

KiVa Finlandiako Turku Unibertsitateak (Finlandiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren babesaz) garatutako jazarpenaren kontrako programa da.

KiVa PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

- Ekintza orokorrak, tutoreak ikasleekin tratatzen dituenak; eta berariazkoak, KiVa taldeak aurrera eramaten dituenak
- Material eta tresna jakin ugari: erregistroak, txalekoak...
- Ikaskuntza-ingurune birtualak (bideojokoak)
- Talde osoko eragina, rol guztiak kontuan hartuz
- Oso sistematikoa

KiVa PROGRAMAREN HELBURUAK

- Bullying-aren prebentzioa
- Jazarpenaren abordatze eraginkorra egitea
- Jazarpenaren eragin negatiboak gutxitzea

Gainera, bide horretan ikasleek beste balore garrantzitsu asko ikasten dituzte:

- Besteak errespetuz tratatzen.
- Ikaskideen presioari eusten.
- Norberaren ardura hartzen.

GURASOENTZAKO GIDA

- <http://www.kivaprogram.net/basque/gurasoak/gurasoen-gida>
- Gehiago jakin nahi dut: <http://www.kivaprogram.net/basque>

6. PROIEKTUAK

6.1. HIZPRO–Euskaraz Bizi

Orereta Ikastolako sorrera-helburua euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Etengabeko jarduerak eta kanpainak aurrera eraman arren, helburua betetzeko zailtasunak agerikoak dira Orereta Ikastolan eta euskararen lurralde osoan.

Orereta Ikastola arnagune bat dela jakin arren, asko dugu egiteko. Badira urte batzuk, ikasleak euskararen normalizazioan protagonista izendatu genituela. Euskaraz Bizi egitasmoa berrikusi eta, ikasleen aitzindaritzaz suspertuz, dinamika desberdinak jarri genituen indarrean.

Ikasleak

BLAITU euskara taldea abian da orain urte batzuk gela bakoitzeko ordezkariekin. Bertan aztertu eta diseinatuko dira etapa osorako indarrean jarritako jarduerak eta ekimenak. Beraz, euskararen erabilera sustatzeko, ikasleen motibazioa areagotu eta kalitatea hobetzeko egitasmoa da BLAITU euskara taldea. Horrez gain, 2023-24 ikasturtean proiektu berriak diseinatu eta martxan jarriko dira ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko eta hauen motibazioan eragiteko.

Langileak

Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu euskararen erabileraren alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Familiak

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntz erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu.

Guraso euskaldunek beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntz erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza bizitzaren esparru guztietan.

Guraso erdaldunek ere, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positiboan eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira.

6.2. Zubiak Eraikiz

2016ean sinatu genuen Zubiak Eraikiz hitzarmena Ipar Euskal Herriko lau ikastolarekin. Azken urteetan Berako Labiaga Ikastola eta Lesakako Tantirumairu Ikastolekin (Nafarroa) ere estutu dugu harremana.

Hitzarmenaren helburua

Lurralde administratibo ezberdinetan kokatuta egonik, zubi bat eraikitzea elkarrengana hurbiltzeko. Horregatik, gure Ikastoletako ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak harremanetan jarri nahi ditugu, euskara ardatz hartuta; Lapurdiko, Nafarroko eta Oarsoaldeko eremu euskalduna osatzen dugun pertsonen arteko loturak indartzeko eta elkarrekin hainbat arlotako ekintzak aurrera eramateko.



7. IRAKURZALETASUNA, HEZKUNTZA LITERARIOA

Bigarren ziklo honetan, irakurzaletasuna bultzatzen jarraitzearekin batera, hezkuntza literarioan murgiltzen hasiko gara. Hiruhilabete bakoitzean lan proposamen desberdinak planteatuko ditugu, betiere, ahozko eta idatzizko literaturan oinarrituta. Era berean, irakaslea irakurle eredu izatetik, ikaslea bera irakurle bihurtzera pasako da. Horretarako, astean ordubeteko saioa izango dugu.

Aurtengoan ere, lehengo urteari segida emanez, liburutegia erabiliko dugu, kalitatezko literatura bermatzen duen liburuekin hornitua. Liburu horiek maileguan hartzeko aukera izango dute ikasleek. Liburutegiaren funtzionamendu eta mantenu egokia bermatu dadin, ikasleei liburuak garaiz eta egoera onean itzultzea eskatuko diegu. Herriko Udal Liburutegiarekin ere zubi lana egingo dugu, bisitak programatuko ditugu, bertako ekintzen inguruan informatuko zaituztegu, eta irakasleek bertako baliabideak eskuratzeko aukera izango dugu.

Baina noski, irakurzaletzeak ezin du soilik Ikastolaren helburua izan. Etxeko bultzada ezinbestekoa izango da zuen seme-alabak irakurle aktibo bilakatzeko.

Hemen dituzue etxean irakurzaletasuna bultzatzeko aholku batzuk:

- Irakurketarako giro egokia bermatu.
- Gurasoak seme-alabentzako eredu izan.
- Irakurketa afektibitatearekin lotu.
- Gurasoek istorio asko kontatu: gurasoen benetako istorioak.
- Eguneroko egoerez baliatu irakurtzeko, dituzten afizioak aprobetxatu. Liburutegira joan noizbehinka. Bazkide egin.
- Liburu dendetara edota azoketara joan eta liburuak beraiek aukeratu.
- Etxean liburuak eskura izan, nahi dutenean hartzeko.
- Kalitate literarioa duten ipuinak eskaini (Galtzagorri elkartearen eskutik liburu gomendioak: <https://www.galtzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura>)
- Nahiz eta irakurtzen jakin, beraiekin irakurtzen jarraitu, irakurketa partekatu.
- Irakurketarako giro egokia bermatu.
- Lagunen artean liburuak trukatu.
- Libururik ez debekatu. Aholkatu daiteke.
- Irakurtzen dutenaz interesatu eta guk irakurtzen dugunaren inguruan komentarioak egin.
- Seme-alabak irakurtzearekin ez obsesionatu: askotan hobe da denbora batez bakean uztea eta pixkanaka-pixkanaka gonbidatzen joatea.

Jull kanpaina

2023-2024 ikasturtean Jull kanpaina jarriko da martxan. Helburua irakurzaletasuna sustatzea da. Ikastetxe bakoitzak bere etaparako liburu zerrenda bat egiten du, liburu horiek erosten dira eta ikasleak liburu horiek irakurtzen joango dira. Liburuaren Eguna hurbiltzen denean bozketa bat egiten dute. Bozka horien emaitzak Jul kanpainaren arduradunari bidaltzen zaizkio.

8. BARNE ARAUDIA: ZENBAIT OHAR

8.1. Asistentzia

Ikasleen eskubide eta betebeharrak dokumentuko 23. artikuluan oinarrituta, ikuskaritzatik eman dizkiguten jarraibideak jarraituz, hona hemen hutsegiteak justifikatzeko erabiliko dugun era:

- Klaseetara joatea derrigorrezkoa da. Klaseetara huts egitea kasu guztietan komunikatu beharko da. Jarduera osagarriek eta eskolaz kanpoko ekintzek hezkuntza jarduera arrunten kontsiderazio bera dute, hutsegiteak komunikatzeko prozedurari dagokionez.

- Ikasleek etortzerik ez dutenean, ahal den guztietan, gurasoek edo legezko arduradunek Inikaz jakinarazi behar dute.
- Gurasoei dagokie seme-alaben huts egitearen berri ematea; tutoreari, berriz, ontzat jotzea. Zalantzarik izanez gero, etapako zuzendaritza taldeak erabakiko du onargarria den ala ez.
- Hutsegitea onartezina denean, familiari jakinaraziko zaio. Hutsegiteen berri ematera behartuta gaude udaleko gizarte zerbitzuei eta ikuskaritzari.

8.2. Sakelakoa eta joko elektronikoak

Ziklo honetako ikasleek ezingo dituzte mugikorrek/sakelakoak, musika entzuteko tresnak etab. Ikastolara ekarri.

8.3. Osasun arreta

- Ikastolan ez diegu ikasleei botikarik emango, medikuaren agiririk gabe.
- Ikasleren bat gaixotuko balitz, gurasoei deituko zaie, eta haiek etorri beharko dute ikaslearen bila.
- Larrialdi egoera bat jazoko balitz, larrialdi zerbitzuei hots egingo zaie Ikastolatik, baita gurasoei ere.
- Gaixotasun kronikodun ikasleentzako protokolo bat dugu. Ikasleren baten kasua balitz (asma, medikazioa hartu beharra, krisialdiak...), tutoreari jakinarazi beharko zaio, berak protokoloa martxan jar dezan.
- Ikasleren batek alergiarik edo janari batekiko arazoren bat baldin badu, sendagilearen ziurtagiria Inikaz (ikaslearen fitxatik) bidali behar da.

8.4. Eskola-orduz kanpoko momentuak (eguerdiak eta arratsaldeak)

- Eskola-ordutegia hasi aurretik (9:00ak baino lehen) eta amaitzean (16:30ean) ikasleak Ikastolako eremuan gelditzen badira, gurasoen ardurapean izango da. Eskolaz kanpoko jardueretan bertako monitoreek izango dute zaintzaren ardura.
- Gurasoek eskola ordutegia amaitu aurretik seme-alaben bila etorri behar badute, gelaraino joan beharko dute.

9. TESTU LIBURUAK MAILEGUAN

EKI proiektuaren inplementazioa aprobetxatuz Ikastolak mailegu sistema unibertsala ezartzea erabaki du, EKI proiektuko bost arloetan. Horrek liburuen kostua laurden batera murrizten du. Liburuen zaintza ezinbestekoa da eta ikaslearen ardura da, erabili ondoren Ikastolan geratuko baitira hurrengo ikasturteetarako. Liburuak behar bezala itzultzen ez dituzten edo galtzen dituzten ikasleei, kostuaren ehuneko ehuna kobratuko zaie.

10. GURASOekin HARREMANA

Irakasleak Inikaz jarriko dira familiekin harremanetan, eta familiek ere bide bera erabili behar dute.

Bi bilera orokor egingo ditugu, bat ikasturte hasieran eta bestea bukaeran. Banakako bilerak, bi egingo ditugu oro har: 1. hiruhilekoan edo 2. hiruhilekoaren hasieran bat, eta kurtso bukaeran bestea. Beste bilerarik behar izanez gero edo presazkoak ez diren oharretarako Inika bitartez komunikatu, mesedez.